

XII. IGANDEA URTEAN ZEHAR (B)

Otoitza

Izan dezagula beti, Jauna,
zure izen santuaren beldurra eta maitasuna:
ez baitituzu behinere zeure eskutik uzten
zeure maitasunean sendo jarri dituzunak.
Zure Seme Jesu Kristo.

I. IRAKURGAIA: Job 38, 1. 8-11

Hemen lehertuko da zure olatuen arroa.

Joben liburutik

Jaunak ekaitzaren barrutik hitzeginez, honela esan zion Jobi:
«Nork itxi zuen itsasoa atez,
amaren sabeletik ibaika atera zenean,
hodeia soineko eta lainoa haur-zapi
jantzi nizkionean?
Nik ezarri nizkion mugak,
Nik ipini ateak eta morroiloak.
"Honeraino iritsiko zara —esan nion—,
eta ez aurrerago;
hemen lehertuko da zure olatuen arroa"».

ERANTZUN SALMOA: Sal 106, 23-24. 25-26. 28-29. 30-31

R/. **Eskerrak Jaunari,
haren maitasuna betikoa baita.**

Edota **Aleluia.**

Untzietan itsasora sartu zirenak,
ur haundiz sal-erosketara joan zirenak:
Haiek ikusi zituzten Jaunak eginak,
ur zabalean Haren mirariak. R/.

Haren hitzera jaiki zen ekaitz haizea,
uhinak harrotuz oso gora:
Zeruraino igotzen ziren, hondarreraino jaisten,
haien barrena larritasunez ari zen urtzen. R/.

Deiadar egin zioten larrialdi hartan Jaunari,
eta atera zituen beren nahigabetik.
Haize leunez baretu zuen ekaitza,
itsas-uhinketa isildu baitzen. R/.

Poztu ziren ura isiltzean,
utzi zituen berek gogo zuten kaian.
Eskerrak eman biezazkiote Jaunari
bere maitasunaren orde,
harrigarriak egin baititu gizakien alde. R/.

II. IRAKURGAIA: 2 Kor 5, 14-17

Berria hasi da.

San Paulo Apostoluak Korintotarrei

Senideok: Kristoren maitasunak behartzen gaitu; jakinik, bat denengatik hil bada, denak hil direla. Kristo denengatik hil zen, bizi direnak ez daitezen berentzat bizi, berengatik hil eta biztu den Harentzat baizik.

Horregatik, hemendik aurrera guk ez dugu inor giza lege ezagutzen. Eta inoiz Kristo giza lege ezagutu badugu ere, orain ez dugu hala ezagutzen. Kristorena dena, sorkari berri da; zaharreneak egin du; berria hasi da.

EBANJELIOA: Mk 4, 35-40

Aleluia: Lk 7, 16

R/. Aleluia.

V/. Profeta haundi bat agertu da gure artean.

Jaungoikoak ikustaldi egin dio bere herriari. R/.

Nor dugu Hau?

Haizeak eta itsasoak ere obeditzen baitiote!

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik

Egun hartan, ilunabarrean, Jesusek honela esan zien ikasleei: «Goazen uraz beste aldera». Eta jendea utzi, eta ontzian eraman zuten, zegoen bezala. Beste ontzi batzuek ere jarraitu zioten.

Haize ekaitz haundi bat sortu zen, eta ontzi barruraino sartzen ziren ur palastak, ontzia ia betetzeraino. Bera, berriz, txopan, burko baten gainean lo zegoen. Esnarazi eta esan zioten: «Maisu, galtzera goaz, eta ez al zaizu axolarik?» Orduan jaikirik, agindu zion haizeari, eta itsasoari esan: «Ixo! Hago geldi!» Gelditu zen haizea, eta barealdi haundia sortu zen.

Gero honela esan zien: «Zergatik zarete horren beldurti? Ez al duzue oraindik sinesmenik?» Eta harriturik gelditu ziren; eta honela zioten elkarri: «Nor dugu, ordea, Hau? Haizeak eta itsasoak ere obeditzen baitiote!»

Oparigaien gainekoa

Onar, Jauna, bakezko eta gorespenezko opari hau;
beronek garbi gaitzala bekatuetatik
eta Zuretzat opari atsegingarri egin.
Jesu Kristo.

Jaunartze ondorengoa

Kristoren gorputz santuaz eta odol baliotsuaz
janaritu gaituzu, Jauna;
zure bihotz onari eskatzen diogu,
Mezan ospatzen duguna, betiko salbamen izan dakigula.
Jesu Kristo.